

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### HEZKUNTZA SAILA

## 5446

*AGINDUA, 2023ko azaroaren 30ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, 2023ko urriaren 30eko Agindua aldatzen duena. Azken agindu horren bidez, argitara eman zen, batetik, iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan hautatutako pertsonen bigarren zerrenda osagarria (Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko aginduen bidez deitutakoa), eta, bestetik, uko egiteagatik edo deialdian eskatutako baldintzak ez betetzeagatik karrerako funtzionario izendatzeko eskubideak galdu dituzten pertsonen bigarren zerrenda.*

Hezkuntzako sailburuaren 2023ko urriaren 30eko Aginduaren bidez, argitara eman zen, batetik, iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan hautatutako pertsonen bigarren zerrenda osagarria (sailburu beraren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko aginduen bidez deitutakoa), eta, bestetik, uko egiteagatik edo deialdian eskatutako baldintzak ez betetzeagatik karrerako funtzionario izendatzeko eskubideak galdu dituzten pertsonen bigarren zerrenda.

Ohartarazi da 2023ko urriaren 30eko Aginduaren II.b eranskineko pertsonak (2023ko irailaren 30etik aurrera aurkeztutako uko egiteak) oker sartuta daudela bertan; izan ere, uko egite horien aurretik ez zuten bete Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko Aginduen 8.4 oinarriaren aurreikuspena, hau da, 8.1 oinarrian eskatutako dokumentazioa aurkeztea. Horrek esan nahi du eranskin bereizi batean jaso behar zirela, eskatutako dokumentazioa ezarritako epearen barruan aurkezten ez duten pertsonak eta karrerako funtzionario izendatzeko eskubide guztiak galtzen dituztenak. Kasu horretan, hautatutako ordezkoen zerrenda erabili behar da, agindu horien 7.5 eta 7.6 oinarrietan aurreikusitakoaren arabera.

Bestalde, ohartarazi da Lehen Hezkuntzako espezialitatean 6 pertsonak bertan behera utzi dutela prozesua, uko egiteagatik edo eskatutako baldintzak ez betetzeagatik, baina hautatutako 5 ordezko baino ez dira argitaratu; beraz, akats hori zuzendu da eta Lehen Hezkuntzako espezialitatean hautatutako ordezko berri bat sartu da. Azkenik, kontuan hartu behar da hautatutako beste pertsona baten egoera, karrerako funtzionario izendatua izateko eskubide guztiak galtzen dituen; izan ere, ez zuen bete 8.4 oinarri horretan aurreikusitakoa, hau da, eskatutako dokumentazioa aurkeztea. Kasu horretan, hautatutako ordezkoen zerrenda ere erabili beharko da.

Hori guztia ikusita, eta Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko Aginduaren 7.5 eta 8.4 oinarrietan eta sailburu beraren 2022ko azaroaren 30eko Aginduaren 7.6 eta 8.4 oinarrietan xedatutakoarekin bat etorritik, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

1.– Aldatzea Hezkuntzako sailburuaren 2023ko urriaren 30eko Agindua, zeinaren bidez argitara ematen baita, batetik, Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko Aginduen bidez deitutako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan hautatutako pertsonen bigarren zerrenda osagarria, eta, bestetik, uko egiteagatik edo

deialdian eskatutako baldintzak ez betetzeagatik karrerako funtzionario izendatzeko eskubideak galdu dituzten pertsonen bigarren zerrenda. Honela aldatuko da:

1.1.– II.b) eranskina indarrrik gabe uztea.

1.2.– Eranskin berri bat gehitzea, IX. eranskina izenekoa. Bertan, Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko Aginduen 8.4 oinarrian aurreikusitako kasuan egoteagatik karrerako funtzionario izendatzeko eskubide guztiak galduko dituzten pertsona hautatuen zerrenda jasotzen da. Eranskin horretan honako pertsona hauek sartzen dira:

NAN	1. abizena	2. abizena	Izena	Espezialitatea
***1308**	Iragui	Iturralde	Yolanda	0103 – Ingelesa
***4045**	Martínez-Pantoja	Markotegi	Amaia	0103 – Ingelesa
***5385**	Flores	Uranga	Ibai	0132 – Filosofia
***1997**	Ekisoain	Burgi	Virginia	0134 – Gaztelania eta literatura
***7784**	Equisoain	Burgui	César	0134 – Gaztelania eta literatura
***8187**	Esparza	Satrústegui	Aintzane	0134 – Gaztelania eta literatura
***4612**	Alda	Garcia de Amezaga	Ruth	1564 – Ile-apainketa
***7374**	Santxez	Urkia	Aitor	0956 – Gorputz Hezkuntza

1.3.– Hautatutako pertsonen bigarren zerrenda osagarriari buruzko I. eranskinean, ordezkoen zerrendan agertzen diren eta Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko aginduen bidez deitutako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespeneko prozesuan hautatutzat jotzen diren pertsona hauek sartzea:

NAN	1. abizena	2. abizena	Izena	Espezialitatea
***3422**	López	Vazquez	Virginia	0103 – Ingelesa
***8665**	Intxausti	Aldana	Gotzone	0103 – Ingelesa
***3403**	Goenaga	Oiarzabal	Miren Amaia	0132 – Filosofia
***2243**	Macua	Chana	Roberto	0134 – Gaztelania eta literatura
***4147**	Garcia	Vilar	Montserrat	0134 – Gaztelania eta literatura
***6426**	Olaskoaga	De Castro	Amaia	0134 – Gaztelania eta literatura
***3178**	Bidaurratzaga	Undabarrena	Goizalde	1564 – Ile-apainketa
***8433**	Azkargorta	Pradera	Gaizka	0956 – Gorputz Hezkuntza
***9804**	San Pedro	Uriondo	Arantzazu	0951 – Lehen Hezkuntza

2.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Hezkuntza Sailaren Interneteko helbide honetan argitaratuko da:

LHko sektore berezietako irakasle espezialistentzat:

<https://hezigunea.euskadi.eus/> («Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartuz) – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «2022ko EPE. Irakasleak. Egonkortzeko salbuespeneko prozesua – LHko sektore berezietako irakasle espezialistak – «Berriak»

Gainerako kidegoetarako:

<https://hezigunea.euskadi.eus/> («Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartuz) – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin – «Administrazio-izapideak» – «2022ko EPE. Irakasleak. Egonkortzeko salbuespenezko prozesua» – «Berriak»

3.– Bost egun naturaleko epea irekitzea, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, agindu honen 1.3 azpiatalean ageri diren izangai hautatuek Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko aginduen 8.1 oinarrian adierazitako dokumentuak aurkez ditzaten.

Dokumentazioa online aurkeztuko da, <https://hezigunea.euskadi.eus/> («Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartuz) – Tramitagune – «Administrazio-espeditenteak: eskaerak, erreklamazio formalak, errekursoak» – «Hautaketa-prozedurak» – «EPE 2022. Salbuespenezko egonkortze-prozesua» – «Merezimendu-lehiaketa». Agindu honen eranskin batean, zinpeko aitortenaren eredia argitaratzen da, bai eta «Hautatuek agiria entregatzeko» eredia ere, zeina bete eta adierazitako helbidean aurkeztu beharko baita.

4.– Eskatutako dokumentazioa aurkezten ez dutenek, edo dokumentazio hori aztertuta ondorioztatzen bada deialdiaren 2. oinarrian adierazitako baldintzaren bat betetzen ez dutela, karrerako funtzionario izendatua izateko eskubide guztiak galduko dituzte, hargatik eragotzi gabe hasierako eskabidean egindako faltsutzeengatik izan lezaketen erantzukizuna. Era berean, eskubide guztiak galduko dituzte azterketa medikoan ez-gaitzat jotzen direnek.

5.– Agindu honen aurka, berraztertzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroaren 30a.

Hezkuntzako sailburua,  
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

2023ko abenduaren 7a, osteguna

## ERANSKINA

EPE 2022. IRAKASLEAK. EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO PROZESUA

HAUTATUEK DOKUMENTAZIOA ENTREGATZEA

Abizenak:		
Izena:	NAN:	Telefonoa:
Especialitatea:		
Hautatua izan naiz Hezkuntza sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta 2022ko azaroaren 30eko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozesuan; hori dela-eta, honako agiri hauek aurkezten ditut (deialdiaren 8 atala):		
<p>AURKEZTUKO DUZUN/DITUZUN DOKUMENTUARE/EN ZERRENDA (Markatu entregatuko dituzunak)</p> <p><input type="checkbox"/> Kidegoan sartzeko eskatutako titulua edo jaulkitzeko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria. (*Oharra)</p> <p><input type="checkbox"/> N.A.N. (edo, atzeritarra bazara, beste dokumentu batzuk - 8.1.a) oinarria) (*Oharra)</p> <p><input type="checkbox"/> Zinpeko aitortpena edo hitzematea</p> <p><input type="checkbox"/> Hizkuntza-eskakizunaren titulua edo ziurtagiria, baldin eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan edo Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan jasota ez badago</p> <p><input type="checkbox"/> Prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa edukitzea egiaztatzen duen ziurtagiri edo titulua; edo, hala badagokio, betekizun horretatik salbuetsita egotearen titulua edo esperientzia</p> <p style="padding-left: 40px;"><input type="checkbox"/> Ziurtagiria edo master titulua PPD    <input type="checkbox"/> Titulu baliokideak    <input type="checkbox"/> Irakasle esperientzia</p> <p><input type="checkbox"/> Epai irmo baten bidez sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituren bategatik zigortuak izan ez direla adierazten duen ziurtagiria. (*Oharra)</p> <p><input type="checkbox"/> Gaztelaniaren ezagutza egiaztatzea (espainiako nazionalitatea ez duten eta hizkuntza ofizial gisa espainiera ez duten pertsonen kasuan)</p>		
<p>(* ) Oharra: DOKUMENTUA EZ BADUZU ENTREGATUKO eta kontsultatzeko baimena eman nahi baduzu, EZ MARKATU GOIAN dagokion ataleko koadroa ETA ADIERAZI HEMEN BAIMENA EMATEN DUZULA.</p>		
Data, tokia	Izenpetua	

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENTZAT. HEZKUNTZA SAILA

2023ko abenduaren 7a, osteguna

EPE 2022. IRAKASLEAK. EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO  
ZINPEKO AITORPENA

Nik.....  
.....

NAN  
zkia.....  
.....

ZIN EGITEN DUT EDO HITZ EMATEN DUT inongo administrazio publikotik ez nautela zigor-  
espediente baten ondorioz egotzi, ez naizela herri-jarduerarako ezgaitu, eta ez nagoela Herri  
Administrazioetan jarduten duten langileen bateraezintaunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984  
Legean aurreikusitako ezgaitasun eta batera-ezintasunaren legezko inolako kausatan sartuta.

....., 2023ko.....-k.....

Izpta.:

Nazionalitate espainolik ez duten izangaiek betetzeko:

Nik.....  
.....

NAN  
zkia.....  
.....

ZIN EGITEN DUT EDO HITZ EMATEN DUT .....(e)an (estatuaren izena), Funtzio  
publikora sartzea eragozten duen diziplina- edo espetxe-zigorrik ez dudala.

....., 2023ko.....-k.....

Izpta.: